

Bulletin Municipal - Herriko Aldizkaria

- | | |
|---|--|
| 2 Le mot du Maire | 3 Auzapezaren hitza |
| 4 Budget prévisionnel 2024 | 4 2024ko aurrekontua |
| 8 Demande de carte d'identité et passeport | 8 Nortasun agiria eta pasaporte eskatzea |
| 9 Application France Identité | 9 France Identité aplikazioa |
| 10 Adressage normalisé, déploiement fibre | 10 Helbideratze normalizatua, zuntz optikoaren hedapena |
| 11 Lotissement URTSU | 11 URTSU lotizamendua |
| 12 Financement des coûts d'extensions de réseau électrique | 12 Elekrika sarearen luzatzeko gastuen finantzamendua |
| 12 Exonération de taxe foncière sur le bâti | 12 Funts eraikien gaineko lur zergaren dispentsa |
| 13 Tarification spécifique agricole eau et assainissement | 13 Ur eta saneamendurako laborantzako prezio berezia |
| 14 Association BERRIZ AINTZINA | 14 BERRIZ AINTZINA elkarte |
| 15 Informations diverses | 15 Gainerako argibideak |
| 15 Fête du fromage | 15 Euskal gasnaren besta |
| 16 Fêtes de Macaye, agenda | 16 Makeako bestak, agenda |

Lotissement URTSU Exemple d'implantation

URTSU etxe multzoaren antolaketa adibidea



Le mot du Maire

Chers Makear,

Avec cette période estivale qui s'ouvre à nous, les rayons de soleil qui commencent lentement mais sûrement à réchauffer notre vie quotidienne après ce printemps pluvieux mais cependant bénéfique pour notre nature, il s'agit de faire un point d'étape concernant les réalisations et projets dans notre commune.

Malgré un contexte financier difficile pour les communes, notre détermination ne faiblit pas et nous poursuivons avec maîtrise nos projets.

- Poursuite des travaux de voirie communale
- Route d'Urzuria élagage des arbres
- Septembre 2024 début de travaux de sécurisation de l'église avec rénovation des abords de celle-ci et du fronton avec pour objectif la réouverture de l'église à Noël 2024.
- Début septembre 2024 démarrage de la viabilisation du nouveau lotissement Urtsu.
- Début septembre réalisation d'une aire de jeux attendant au mur à gauche.
- Réalisation et mise en service de la nouvelle station d'épuration prévues pour fin décembre.

Notre optimisme peut être mis à rude épreuve, rechercher le positif peut sembler difficile, mais nous devons résister, nous devons montrer que nous sommes collectifs, l'esprit du village que l'on cultive, c'est aussi ça, se retrouver autour des festivités, oublier un temps ce qui nous sépare et apprécier ce qui nous rassemble. Les diverses associations de la commune vous préparent une belle fête du village, une belle fête de fromage etc..

Venez comme vous êtes.

Bonne saison estivale à vous toutes et tous.

Le Maire,
Alain DUBOIS



Auzapezaren Hitza

Makear agurgarriak,

Udaldia hemen dugu eta eguzki izpiek gure eguneroko bizia emeki baina segurki berotzen hasten dute, alabaina, primadera euritsua ukan dugu baina gure naturari on egin dio. Orain, gure herriko obratzeez eta proiektuez puntua egiteko tenorea jin zaigu.

Herrientzat finantza-testuinguru zaila izanik ere, deliberatuak segitzen dugu eta gure proiektuak aitzina eramaten segitzen dugu.

- Herriko bide obren segitzea
- Urzuriko bideko arbolen xedarratzea
- 2024ko irailean eliza segurtatzeko obrak hasiko dira inguruak eta pilota plaza berrituz; eliza 2024ko Eguberriko nahi genuke berriz ideki.
- 2024ko irail hastapenean Urtsu lotizamendu berria eraikuntzarako egokitzen hasiko gara.
- Irail hastapenean jostaleku bat eraikiko dugu ezker paretari atxikirik.
- Araztegi berria eginen da eta abendu bukaeran beharko luke ibiltzen hasi.

Gure baikortasuna zailtasunean ezarria izan daiteke, eta gauzak positiboki ikustea zail gerta daiteke, baina iharduki behar dugu, taldean ari garela erakutsi behar dugu; lantzen dugun gure herriaren izpiritua hori ere da, hala nola besten inguruan biltzea, bereizten gaituena memento batez ahanzte eta elkartzen gaituena estimatzea. Herriko elkarteek herriko besta ederrak prestatzen dizkizute, gasnaren besta ederra, etab.

Zatozte zareten bezala.


Udaldi on deneri.

Auzapeza,
Alain DUBOIS



Budget prévisionnel 2024 - 2024ko Aurrekontua

1. FONCTIONNEMENT: Dépenses - Gastuak.



1- Charges à caractère général : 187 016 €

- Energie, Electricité, Eau, Carburant : 37 948 €
- Bâtiments, Voies et réseaux, bois et forêts : 87 460 €
- Assurances, honoraires: 18 105 €
- Contrat de prestations de services : 7 000 €
- Fournitures d'entretien et de petit équipement : 7 200 €
- Frais divers (administratif, maintenance, communication, taxes) : 29 303 €

2- Dépenses de personnel et cotisations : 169 805 €

3- Autres charges de gestion courante : 143 368 €

- Indemnités, cotisations Maire et adjoints : 37 000 €
- Contributions aux organismes de regroupement : 58 605 €
- Subventions : 46 058 €
- Location logiciels et site internet : 1 700 €
- Divers : 5 €

4- Intérêts des emprunts : 3 155 €


5- Annulation sur titres antérieurs : 4 237 €

6- Amortissements : 1 493 €

7- Virement à la section d'investissement : 122 497 €

Budget prévisionnel 2024 - 2024ko Aurrekontua

2. FONCTIONNEMENT: Recettes - Irabaziak.



1- Produits des services et du domaine : 34 672 €

- Mise à disposition personnel (CCAS, Lemalu) : 25 000 €
- Divers 9 672 €

2- Impôts et taxes : 332 584 €

- Contributions directes (Impôts locaux) : 127 168 €
- Attribution de compensation : 129 001 €
- Fonds Nationaux de Garantie Individuelle des Ressources : 61 688 €
- Taxe sur l'électricité : 14 727 €

3- Dotations, subventions et participations : 143 658 €

4- Produits de gestion courante (participation La Poste, loyers appartements) : 43 040 €

5- Produits financiers : 16 €

6- Résultat reporté : 77 601 €

Le budget prévisionnel de fonctionnement, pour l'année 2024, est équilibré à 631 571 Euros.

2024ko aurrekontu arrunta orekatua da 631 571 eurotan.

Budget prévisionnel 2024 - 2024ko Aurrekontua

3. Investissements

| Dépenses | Recettes | |
|-----------|-----------|---|
| 330 000 € | 252 000 € | <p>Rénovation de l'église : La réparation de la charpente de l'église et la rénovation du fronton attenant débuteront courant de l'été 2024.</p> <p>Le budget prévisionnel est de 330 000 € subventionné par l'État, la Communauté d'Agglomération Pays Basque et le Conseil Départemental à hauteur de 252 000 €.</p> |
| 91 000 € | 11 000 € | <p>Voirie : Les principaux travaux de voirie 2024 ont été réalisés en début d'année.</p> <p>Il s'agit des voies de LAUBORDETAKO BIDEA et du parking de la route départementale pour un montant de 72 700 €.</p> <p>Le budget total prévu pour 2024 est de 91 000 €.</p> <p>L'aide attendue est de 11 000 €, somme allouée par le Conseil Départemental.</p> |
| 48 000 € | 28 000 € | <p>Aire d'initiation sportive : Elle sera créée entre l'école et le mur à gauche.</p> <p>Le début des travaux est prévu pour le mois d'Août avec une mise en service programmée en octobre.</p> <p>Le budget alloué est de 48 000 € subventionné par l'État et la Communauté d'Agglomération Pays Basque pour 28 000 €.</p> |
| 195 000 € | | <p>Lotissement URTSU : La viabilisation des cinq lots, commencera début septembre pour un montant de 195 000 €. La dépense totale comprenant ces travaux et l'achat du terrain en 2022 sera financée par la vente des terrains.</p> |
| 42 856 € | | <p>Le capital de la dette (remboursement des emprunts) sera de 42 856 € cette année.</p> |
| | 18 543 € | <p>Le Fonds de Compensation de la TVA engendre une recette de 18 543 € en 2024.</p> |
| 10 900 € | | <p>L'élagage du chemin de URZURIA sera effectué cet été pour un montant de 10 900 €. Une partie de cette dépense sera prise en charge par les propriétaires des parcelles concernées.</p> |
| | | <p>Travaux hors budget communal mais suivis par la Conseil Municipal.</p> <p>L'aménagement et la mise en sécurité de la route départementale en direction de Mendionde, sont en cours. Ces travaux sont pris en charge par le département.</p> <p>Station d'épuration : Les travaux commenceront en septembre pour une mise en service au mois de décembre. La station est financée intégralement par la Communauté d'Agglomération Pays Basque.</p> |

Budget prévisionnel 2024 - 2024ko Aurrekontua

3. Diru ezartzeak

| Gastuak | Irabaziak | |
|-----------|-----------|--|
| 330 000 € | 252 000 € | Elizaren zaharberritzea: Elizako zureriaren konponketa eta datxikion pilota plazaren arraberritzea 2024ko udan hasiko dira. Aurreikusia den aurrekontua 330 000 €-koa da (BEZa gabe), Estatuak, Euskal Hirigune Elkargoak eta Departamendu Kontseiluak finantzatua 252 000 €-taraino. |
| 91 000 € | 11 000 € | Errepideak: 2024ko bide obra nagusiak urte hastapenean egin dira. LAUBORDETAKO BIDEAn eta departamenduko errepideko aparkalekuan egin dira, eta 72 700 € kostatu dute. 2024ko aurreikusi aurrekontu osoa 91000 €-koa da. 11 000 €-ko dirulaguntza ukan behar genuke Departamendu Kontseiluaren partez. |
| 48 000 € | 28 000 € | Kirol inimiziorako gunea: eskolaren eta ezker paretaren artean egingen da. Obrak agorrilean hasiko dira eta gunea urrian erabiltzeko prest izanen da. Esleitu aurrekontua 48 000 €-koa da, Estatuak eta Euskal Hirigune Elkargoak 28 000 €-ko dirulaguntza eman dute. |
| 195 000 € | | URTSU lotizamendua: irailean hasiko dira bost zatiak eraikuntzarako egokitzen, eta 195 000 € kostako du. Obrak eta lurraren erostea (2022an) barne hartzen dituen gastu osoa lurren salmentarekin finantzatuko da. |
| 42 856 € | | Zorraren kapitala (maileguen ordainketa) 42.331 €-koa izanen da aurten. |
| | 18 543 € | BEZaren ordainsari funtsak 18 543 €-ko irabazia emanen du 2024an. |
| 10 900 € | | URZURIA bidearen xedarratzea uda honetan egingen da eta 10 900 € gostako du. Gastu horren parte bat dagozkion lursailen jabeek ordainduko dute. |
| | | <u>Herriko Etxearen aurrekontutik kanpo dira obrak, baina Herriko Kontseiluak segitzen ditu.</u> |
| | | Lekornera buruzko departamendu errepidearen antolaketa eta segurtasuna hasiak dira. Departamenduak ditu obra horiek ordaintzen. |
| | | Ur-araztegia: Obrak irailean hasiko dira eta araztegia abenduan ibiltzen hasiko da. Euskal Hirigune Elkargoak du osoki finantzatzen. |

Demande de Carte Nationale d'Identité et de passeport

Parcours de l'utilisateur

Les étapes pour réaliser une demande de CNI / Passeport



1 Préparer les documents

1

- Livret de famille (pour une demande de CNI pour les -18 ans)
- Extrait d'acte de naissance (avec filiation)
- Avoir une adresse e-mail valide



Si besoin : se faire accompagner numériquement dans la pré-demande

2

- Point d'Accueil Numérique en préfecture et sous-préfectures
- Espaces France services : <https://shorturl.at/iXZ04>



Prendre rendez-vous en ligne pour finaliser la demande en mairie dotée d'une station biométrique

3

- Aide à la prise de rendez-vous au Point d'Accueil Numérique en préfecture et sous-préfectures, ou en espace France services



Finaliser la demande dans une mairie dotée d'une station biométrique

4

- Apporter une photo d'identité récente et conforme + la copie de la pré-demande en ligne (contenant un QR code)
- Collecte et vérification des données de la pré-demande
- Prise d'empreintes
- Envoi de la demande au CERT
- Mise en fabrication et délivrance du titre d'identité

CNI & PASSEPORTS DE LA PRÉ-DEMANDE À LA DEMANDE



LE PARCOURS DE L'USAGER

Préfecture des Pyrénées-Atlantiques
2 rue du Maréchal Joffre - 64024 Pau CEDEX
05 59 96 24 24

Conception : BRICI - Révisé : 2024
Ne pas jeter sur la voie publique

[f](#) [i](#) [X](#) [in](#) @Prefet54

1. Pré-demande

- ➔ Je réalise ma pré-demande sur le site : ants.gouv.fr
- ➔ J'obtiens un RDV pour le dépôt de dossier en mairie dotée d'une station biométrique

EN AUTONOMIE OU ACCOMPAGNÉ

Chez moi via un ordinateur, une tablette ou un smartphone



- ➔ En espace France services
- ➔ En préfecture ou sous-préfectures



2. Demande

- ➔ J'apporte mon numéro de la pré-demande en ligne
- ➔ Je fais compléter mon dossier par l'agent de mairie
- ➔ Je fais la prise d'empreintes
- ➔ Je retire ma CNI* et/ou mon passeport
- ➔ J'apporte une photo d'identité récente et conforme + la copie de la pré-demande en ligne (contenant un QR code)

*Carte Nationale d'Identité

EN MAIRIE



⚠ La mairie doit être dotée d'une station biométrique

Application France Identité

France Identité aplikazioa

Cette application téléchargeable sur téléphone mobile permet de disposer de sa carte d'identité sur son mobile et aussi de son permis de conduire. Les conditions pour pouvoir installer cette application sont les suivantes:

- Posséder la nouvelle carte d'identité (format carte bancaire) ;
- Être majeur ;
- Avoir un téléphone Android 11 minimum et disposant de la technologie NFC ou un iPhone iOS 16 minimum.

De plus, l'application permet de se connecter avec sa carte d'identité pour avoir accès aux services disponibles sur FranceConnect.

Vous trouverez toutes les informations sur internet dans les liens suivants:

Smartphonean telekarga daitekeen aplikazio horren bidez nortasun agiria eta gidabaimena telefonoan ukan daitezke.

Hona aplikazio horren instalatzeko baldintzak:

- Nortasun agiri berria ukaitea (banku txartelaren formatukoa);
- Adinetan izatea;
- Gutierrez NFC teknologiadun Android 11 telefono baten ukaitea edo iPhone iOS 16 gutierrez.


Gainera, aplikazioaren bidez nortasun agiriarekin konekta daiteke FranceConnect webguneko zerbitzuetara.

Argibide guziak Interneteko lotura hauetan atzemanen dituzu:

<https://ants.gouv.fr/nos-missions/identite-numerique-fin>

<https://france-identite.gouv.fr/articles/france-identite-devient-fournisseur-d'identite-FranceConnect.html>

France Identité permet de




Fournir un justificatif d'identité à usage unique

Facilement, en toute sécurité, et à usage unique. Terminés les scans de carte d'identité!



Accéder à plus de 1 400 services en ligne

Un compte unique pour accéder à tous vos services.



Prouver votre identité ou de certains attributs...

En ligne ou pour des usages de proximité avec ou sans partage de vos données



ou encore de votre droit à conduire

Lors d'un contrôle routier ou pour louer un véhicule

Adressage normalisé, déploiement fibre

La mise en place de l'adressage normalisé est désormais obligatoire pour toutes les communes.

Les nombreux enjeux relatifs à l'adressage consistent à garantir l'acheminement du courrier (aujourd'hui, les facteurs ne sont pas nécessairement issus de la région et ne connaissent pas personnellement tous les habitants de la commune) et des colis, de permettre l'intervention rapide des services d'urgences, d'optimiser la collecte des déchets et d'assurer la navigation GPS via les différentes applications existantes.

Il est donc vivement recommandé de mettre à jour votre adresse (Numéro et nom de voie en basque) sous peine de ne plus recevoir de courrier, auprès des différentes institutions et organismes remplissant des missions de service public. De plus, les boîtes aux lettres en bordure de propriété sont obligatoires. En l'absence de celles-ci, le courrier ne sera pas distribué.

Il est également vivement recommandé de mettre en place le panneau de n° et nom de maison mis à votre disposition par la commune afin de faciliter la visibilité des logements aux différents acteurs de ces missions.

La mise en place des panneaux de voies ayant été assurée par la commune pour ces mêmes raisons, ils seront remplacés s'ils venaient à être endommagés accidentellement. En effet, certains panneaux ont une fâcheuse tendance à disparaître régulièrement (2 fois pour l'un d'entre eux) et, ne seront pas immédiatement remplacés si ces disparitions se répètent à l'avenir.

Cet adressage est également nécessaire dans le cadre du déploiement de la fibre et de l'éligibilité de chaque logement. Aussi, vous trouverez ci-dessous des informations dédiées aux questions relatives à la fibre.

Helbideratze normalizatua, zuntz optikoaren hedapena

Hemendik aitzina helbideratze normalizatua plantan ezartzea nahitaezkoa da herri guzientzat. Helbideratzeak erronka anitz ditu, hala nola gutunen eta paketeen bideratzea bermatzea (egun, postariak ez dira beti hemengoak eta ez dituzte herritar guziak pertsonalki ezagutzen), larrialdi zerbitzuak laster heltzea, hondakinen bilketa optimizatzea, GPS nabigazioa segurtatzea dauden aplikazioen bidez.

Beraz, zinez gomendatua da helbide berria (zenbakia eta bidearen euskarazko izena) jakinaraztea zerbitzu publikoa bermatzen duten erakunde eta organismoiei, bestela gutunak ez dira gehiago helduko. Gainera, nahitaezkoa da gutunontziak etxe bazterrean ezartzea. Bestela gutunak ez dira banatuko.

Zinez gomendatua da ere Herriko Etxeak eman zenbakia eta etxearen izena ezartzea eragile guziei bizitegien ikusgarritasuna errazteko. Herriko Etxeak bideen izenak plantan ezarri ditu arrazoi horiengatik, eta ustekabean andeatuak badira ordezkatuko dira.

Alabaina, bide-seinale batzuk erregulariki desagertzen dira (horietarik bat bi aldiz desagertu da), eta berriz ere desagertzen badira, ez dira berehala ordezkatu.

Helbideratzea beharrezkoa da zuntz optikoaren hedapenerako eta hau bizitegi bakoitzean instalatzeko.

Beraz, beherago zuntz optikoari buruzko argibideak atzemanen dituzu.

THD
64

VOS POINTS DE CONTACT

NOUVEAUTE

Mise en place d'un numéro dédié aux questions relatives à la fibre

08 06 00 04 26

Du lundi au vendredi de 9h-12h et 14h-17h30,
appel non surtaxé au cout d'un appel local

ou poser votre question sur :

<https://www.thd64.fr/une-question>

XpFibre

Panne d'internet, vous devez appeler votre opérateur !



1023



3900



3244



1064

Autres dispositifs mis à disposition par THD64

- Tester son éligibilité à la fibre optique :
<https://www.thd64.fr/test-deligibilite>
- Déclarer une nouvelle construction :
<https://immobilier-neuf.xpfibre.com/#/home>
- Déclarer un Dommage Réseau :
<https://www.thd64.fr/declaration-dommages-reseaux/39>

Lotissement URTSU

Un nouveau lotissement comprenant 5 lots, nommé Urtzu, sera aménagé en face du garage Hirigoyen. Les surfaces des lots sont quasi toutes identiques, aux alentours de 600 m². Le prix des terrains sera établi de manière à faire une opération neutre pour les finances de la commune. A ce jour, l'estimation du prix se situe aux alentours de 120 € le m², le calcul des frais engagés par la commune devant être affiné.

Pour rappel, le terrain de 5000 m² avait été acheté à un privé à hauteur de 190 000 €.

La commune entamera à partir de septembre 2024 les travaux d'aménagement (route, espace vert, éclairage) et de viabilisation (eau, électricité, assainissement), estimés à ce jour à 195 000 € HT.

Un règlement a été établi par le conseil municipal pour l'achat de ces lots, afin de garantir la bonne utilisation du foncier à des fins de construction d'habitations principales. Les primo-accédants seront privilégiés ainsi que les jeunes habitants de la commune. De plus, une clause anti-spéculative d'une durée de 15 ans (durée maximale légale) sera instituée lors des ventes.

A ce jour, la mairie a reçu plusieurs candidatures pour l'achat de ces terrains. Les candidatures peuvent être encore envoyées, l'échéance de clôture étant fixée le 1er août.


URTSU lotizamendua

5 zatiko lotizamendu berri bat antolatuko da Hirigoyen garajearen parean: Urtzu lotizamendua. Kasik zati guziaz azalera berekoak dira, hots, 600 m²-koak. Lursailen prezioa finkatuko da Herriko Etxearen finantzarako eragiketa neutroa izateko gisan. Egun prezioaren estimazioa 120 €/m²-koa da nonbait han, eta Herriko Etxeak jadanik egin gastuen kalkulua zorroztekoa da.

Oroitarazten da 5000 m²-ko lursaila pertsona pribatu bati erosi zitzaioela 190 000 €-tan.

2024ko irailetik goiti Herriko Etxeak antolaketa obrak (bidea, berdegunea, argiak) eta eraikuntzarako egokitzeko obrak (ura, elektrikak, saneamendua) hasiko ditu; 195 000 € (BEZa gabe) gostako dutela estimatua da.

Herriko Kontseiluak araudi bat plantan ezarri du lur-zatien horien erosketarako, lur-funtsen erabilera ona bermatzeko, hots, bizitegi nagusi gisa erabiliko diren eraikuntzak egiteko. Lehen aldikoz erosten duten jendeak lehenetsiko dira baita makear gazteak. Gainera, 15 urteko iraupena ukanen duen espekulazioaren kontrako klausula ezarriko da lurra saltzean. Egun, Herriko Etxeak kandidatura bat baino gehiago ukan ditu lur horien erosteko. Kandidaturak oraino igor daitezke agorilaren 1a arte.



Financement des coûts d'extensions de réseau électrique

Territoire d'Énergie – TE 64 (ancien SDEPA) est maître d'ouvrage des travaux de raccordement électrique (extension du réseau public de distribution), dans les 477 communes du département classées en régime rural d'électrification (ENEDIS assurant cette même maîtrise d'ouvrage dans les 69 communes classées en régime urbain).

Jusqu'ici, TE 64 réalisait ces travaux en prenant en charge 80% du coût des extensions, les communes rurales prenant à charge la différence (charge communale).

A partir du 23 août 2023 et afin d'être conforme à la loi, les demandeurs d'autorisations de construire nécessitant une extension de réseau électrique (raccordement) devront désormais s'acquitter du solde résiduel, déduction faite des aides éventuelles apportées.

TE 64 continuera de financer les extensions de réseaux publics de distribution d'électricité dans les communes de régime rural d'électrification toujours à hauteur de 80% (dans la limite des plafonds subventionnables selon que les travaux soient souterrains ou aériens).

Cette nouvelle pratique aura pour conséquence d'impacter financièrement les pétitionnaires pour leurs projets immobiliers.

Elektrika sarearen luzatzeko gastuen finantzamendua

TE 64 Energia Lurraldea (lehengo SDEPA) elektrika lotura obren obragina da (banaketa sare publikoaren hedatzea) elektrifikaziorako baserrialde-erregimenean sailkatu Departamenduko 477 herrietan (ENEDISek obragintza bera bermatzen du hiri-erregimenean sailkatuak diren 69 herrietan).

Orain arte TE64k zituen obra horiek egiten eta zabaltze kostuaren % 80a ordaintzen; baserrialdeko herriek desberdintasuna pagatzen zuten (herri karga).

2023ko agorrilaren 23az geroztik, legearen arabera izateko, elektrika sarea zabaltzeko beharra duten (dagoen sareari lotzea) eraikitze-baimen galdegileek beharko dute gelditzen dena ordaindu, ukan ditzaketen dirulaguntzak kendu ondoan.

TE 64k segituko du elektrika banatzeko sare publikoaren zabaltzea finantzatzen % 80taraino elektrifikaziorako baserrialde-erregimenean diren herrientzat (eman daitezkeen dirulaguntzen muga, obrak lurpekoak edo airekoak diren arabera).

Praktika berri horrek galdatzaileengan eragin ekonomikoa ukanen du haien higiezin proiektuetan.

Exonération de taxe foncière sur le bâti pour dépenses destinées à économiser l'énergie

Le Conseil Municipal a décidé d'exonérer à 100%, dans les conditions prévues à l'article 1383-0 B du Code Général des Impôts, de la part communale de taxe foncière sur les propriétés bâties, à compter du 1er janvier 2025, et pour une durée de trois ans, les logements achevés avant le 1er janvier 1989 qui ont fait l'objet de dépenses d'équipement destinées à économiser l'énergie.

Cette exonération s'applique aux logements lorsque le montant total des dépenses payées au cours de l'année qui précède la première année d'application de l'exonération est supérieur à 10 000 € par logement ou lorsque le montant total des dépenses payées au cours des 3 dernières années qui précèdent l'année d'application de l'exonération est supérieur à 15 000 € par logement.

Funts eraikien gaineko lur zergaren dispentsa energia gutiago gastatzeko egin gastuen karietara

Herriko Kontseiluak erabaki du Zergen Kode Orokorreko 1383-0 B artikuluko baldintzen arabera % 100ean dispentsatzea 2025eko urtarrilaren 1etik goiti eta hiru urterako funts eraikien gaineko lur zergaren herriko partea 1989ko urtarrilaren 1a aitzin bukatu bizitegiak, energia gutiago gastatzeko ekipamendu gastuak egin badira.

Dispentsa hori bizitegiei aplikatzen da dispentsa aplikatzen den lehen urtearen aitzineko urtean ordaindu gastuen zenbatekoa 10 000 € baino handiagoa denean bizitegi bakoitz, edo dispentsa aplikatzen den lehen urtearen aitzineko 3 urteetan ordaindu gastuen zenbatekoa 15 000 € baino handiagoa denean bizitegi bakoitz.

Tarification spécifique agricole eau et assainissement

La Communauté d'Agglomération Pays Basque (CAPB) a approuvé des mesures particulières suivantes destinées aux agriculteurs:

1. Des tarifs spécifiques dits "tarifs agricoles" applicables à l'ensemble des compteurs éligibles (compteurs dont les abonnés sont agriculteurs), visant à atténuer et lisser la hausse de la tarification de l'eau:

- Par un plafonnement des parts variables eau et assainissement aux tarifs plancher,
- Par la limitation de l'augmentation de la part eau potable d'une facture annuelle.

2. Des « compteurs verts agricoles » avec des mesures tarifaires associées.

Un « compteur vert agricole » est un compteur qui ne comptabilise que l'eau utilisée pour l'arrosage, l'abreuvement, les bâtiments d'élevage ou autres utilisations ne générant pas d'effluents.

Aussi, la facture d'eau associée à un « compteur vert agricole » sera exonérée :

- des parts assainissement collectif,
- de la part redevance modernisation des réseaux de collecte, et de la part redevance pollution domestique.

La part fixe « eau » du compteur vert agricole sera de 20 € HT/an/compteur.

Les compteurs existants remplissant les caractéristiques d'un « compteur vert agricole » bénéficieront des mesures tarifaires associées.

Les agriculteurs disposant de compteurs communs à l'exploitation (ne générant pas d'eaux usées) et à l'habitation pourront solliciter la mise en place d'un compteur vert agricole, financée par la CAPB, la modification des réseaux après compteur restant à la charge des agriculteurs.

Afin de recenser vos compteurs et leurs caractéristiques, pour pouvoir bénéficier des tarifs précités et dans le but de solliciter éventuellement la pose d'un « compteur vert agricole », vous devez compléter le formulaire reçu par mail/courrier ou remplir le formulaire en ligne, via le lien suivant :

<https://www.communaute-paysbasque.fr/demande-tarification-agricole>

Seul document à fournir : votre attestation d'affiliation MSA pour justifier votre statut d'exploitant agricole.

Si besoin, Charline de GURE GAIN est à votre disposition pour vous aider à remplir ce formulaire. Elle est présente en mairie de Macaye tous les 15 jours le lundi matin. Vous pouvez la contacter au 07 88 44 24 86.

Ur eta saneamendurako laborantzako prezio berezia

Euskal Hirigune Elkargoak neurri berezi hauek onartu ditu laborariendako:

1. "Laborantza prezioak" deitu prezio bereziak, hautagarri diren kontagailu guzietan aplikatu daitezkeenak (abonatuak laborariak diren kontagailuak), uraren prezioaren gorakada mugatzeko eta leuntzeko:

- Uraren eta saneamenduaren parte aldakorra mugatuz behe-mugako prezioen arabera,
- Urteko faktura baten edateko uraren partearen emendatzea mugatuz,

2. "Laborantzako kontagailu berdeak" doazkien prezio neurriekin. "Laborantzako kontagailu berde batek" ureztatzeko, kabalen edanarazteko, hazkuntza eraikinetarako edo isuririk eragiten ez duen beste erabilertarako erabiltzen den ura baizik ez du kontatzen. Horrela, "laborantzako kontagailu berdeari" lotu ur fakturan ez dira ordaintzen:

- saneamendu kolektiboen parteak,
- bilketa sareen modernizatzeko zerga parteak, etxeko kutsadura zergaren parteak.

Laborantzako kontagailu berdearen "uraren" parte finkoa 20 € (BEZa gabe) /urteko/kontagailuko izanen da.

Instalatuak diren kontagailuek "laborantzako kontagailu berdearen" ezaugarriak betetzen badituzte, dagozkien prezioak aplikatuko dira.

Etxalderako (ur zikinik sortzen ez dutenak) eta etxerako kontagailu bera duten laborariak laborantzako kontagailu berdea galdegiten ahalko dute; Euskal Elkargoak finantzatuko du eta kontagailuaren ondotikako sareen aldaketa laborarien gain izanen da.

Zure kontagailuen eta haien ezaugarrien zerrendatzeko eta aipatu prezioen ukaiteko eta, beharrez, "laborantzako kontagailu berde" baten plantan ezartzea galdatzeko, e-postaz edo gutunez errezibitu inprimakia bete behar duzu edo linean den inprimakia bete: <https://www.communaute-paysbasque.fr/demande-tarification-agricole>

Aurkeztu beharreko dokumentu bakarra: MSAren kide zarela erakusten duen agiria zure laborari estatusa justifikatzeko.

Beharrez, GURE GAIN elkarteko Charline hor duzu inprimakia betetzen laguntzeko. Makeako Herriko Etxean da bi aste guzietan, astelehen goizez. Harekin harremanetan sartzeko: 07 88 44 24 86.

Association BERRIZ AINTZINA**BERRIZ AINTZINA Elkartea**

Nous avons le plaisir de vous annoncer la renaissance de l'association sénior à Macaye. Elle s'appelle dorénavant « Berriz Aintzina ».

Les familles où résidait au moins une personne de plus de 60 ans ont été visitées par un petit groupe de travail qui s'était constitué pour relancer l'association dissoute en 2017. Les rencontres ont été chaleureuses et très fructueuses. Elles ont montré qu'il existait un réel désir de renouer un lien social parmi les makears.

Une assemblée générale constitutive a été réunie le samedi 8 juin 2024 ; elle a réuni une cinquantaine de personnes.

Le conseil d'administration de Berriz Aintzina a été élu et le bureau constitué (voir information ci-dessous).

Nous remercions la commune qui nous a permis de clore cette assemblée générale constitutive autour d'un buffet et d'un verre partagés, parmi une assemblée réjouie de se retrouver.

L'association Berriz Aintzina vous souhaite un bel été et vous donne rendez-vous à la rentrée pour l'assemblée générale et les premières activités.

Berriz Aintzina

Adresse mail: berrizaintzina@gmail.com

Berri on bat badugu .. Adinekoen elkartea berpiztu baita !!! « Berriz Aintzina » izenarekin.

Herritar erretretadun batzuk pentsatu dute zerbait muntatzea beharrezko zela. Adinekoen etxeetan pasa dira talde bat sortu nahian. Hartueman beroak eta aberasgarriak izan dira eta erakutsi dute Makear-en artean bazegoela nahikaria alkartzeko, hitz egiteko eta trukatzeko ...

Biltzar nagusi sortzailea egin zen ekainaren 8 an larunbatan. Jendalde ederra bildu zen, frogatuz biltzeko gogoia.

Elkartearen estatutoak onartu ziren eta administrazio kontseilua eta bulegoa bozkatu izan zen (ikus behoko informazioa).

Goiza bukatu zen, Herriko etxeak eskainitako zintzur bustitze batekin ,solasaldiak segituz ...

Berriz Aintzina elkarteak desiratzen dizute uda eder bat eta gomitatzen hurrengo hitzorduetarat irailean (Biltzar nagusi eta lehen aktibitateak).

Berriz Aintzina

Mail-a: berrizaintzina@gmail.com

Conseil d'administration Administrazio Kontseilua**Bureau****Bulegoa**

| Nom | Prénom | Adresse |
|-----------------|--------------|--------------|
| ACHERITEGUY | David | Zainartea |
| BARDAUD | Brigitte | Ainara |
| DUBOIS | Marie-Claude | Agerrebehera |
| DUHART | Mado | Idiartia |
| DUHART | André | Goizargi |
| ECHEVERRIA | Josiane | Dorregaina |
| ELHUYAR | Françoise | Agueria |
| HIRIGOYEN | Benat | Mendi Xola |
| LARRALDE-UHALDE | Malou | Eskanda |
| LARRONDE | Patrick | Haitzartea |
| MARTINEAU | Alain | Doiaka |
| OILLARBURU | Pierre | Munoa |
| OLHATS | Martine | Ogibamea |
| OSPITAL | Christine | Bordda |
| OXANDABARATS | Menane | Ogibamea |
| SAMSON | Didier | Haize Alde |
| SIMON | Anne-Marie | Xokoan |
| UHALDE | Peio | Eskanda |
| UHALDE | Christiane | Bortxeta |
| UHALDE | Lucie | Etzegaraia |

Président - Lehendakaria :
André DUHART

Vice-Présidente - Lehendakariordea :
Christiane UHALDE

Trésorières - Diruzainak :
Brigitte BARDAUD et Josiane ECHEVERRIA

Secrétaires - Idazkariak :
Françoise ELHUYAR et Martine OLHATS

Informations diverses

Gainerako argibideak

- **Gestion des litiges: Décret n° 2023-357 du 11 mai 2023.**

Les litiges survenant en matière de trouble anormal de voisinage, d'action en bornage, d'élagage d'arbres ou lorsqu'ils tendent au paiement d'une somme n'excédant pas 5 000 € doivent, à peine d'irrecevabilité de l'action en justice, faire l'objet d'une tentative de conciliation menée par un conciliateur de justice, d'une tentative de médiation ou d'une tentative de procédure participative.

- **Elaboration du Plan Local d'Urbanisme Infracommunautaire (PLUi) Labourd Est.**

Une "boîte PLUi" est à disposition à la mairie. Elle contient des informations sur l'avancement de la procédure, les documents d'études validés ainsi qu'un registre papier permettant de recueillir observations et propositions du public.

- **Auzien kudeaketa: 2023ko maiatzaren 11ko 2023-357 dekretua.**

Auzoko ezohiko nahasmenduengatik, mugatze ekintzengatik, arbola xedarratzeengatik edo 5 000 € baino guttiagoko zenbateko baten ordaintzea eskatzeagatik gertatu auzietarako behar da, justizia-ekintza ez dadin onartezina izan, konponbide entsegu bat egin justizia-bakeagile baten bidez edo bitartekaritza entsegu bat edo partaidetza-prozedura entsegu bat.

- **Lapurdi ekialdeko Elkargo azpiko Tokiko Hirigintza Plana (hTHP).**

"hTHP ontzi bat" eskura dago Herriko Etxean. Prozeduraren aitzinamenduari buruzko argibideak atzemanen dituzu, ontzat eman ikerketa dokumentuak baita ere paperezko erregistro bat publikoaren oharrak eta proposamenak biltzeko.

**EUSKAL
GASNAREN BESTA**

LE FROMAGE BASQUE EN FÊTE

AGORRILAK
23
AOÛT
MAKEA - MACAYE
2024

makeako
laborariak

ANIMATIONS GRATUITES ET DÉGUSTATION
ANIMAZIOAK DOHAINIK ETA JASTAKETA

WWW.LEFROMAGEENFÊTE-MACAYE.FR
@LEFROMAGEBASQUEENFÊTE

LARUNBATA 13 SAMEDI

BALL TRAP Mokorretan ACCA Makearrak antolatuturik

OSTEGUNA 18 JEUDI

JOSTAKIN-en GAUALDIA. Haurrak eta ondoik iduzki Lore taldea "Ihesi" antzerkiarekin
20h00 SOIREE DE JOSTAKIN avec les enfants, suivi du théâtre "Ihesi" avec le groupe Iduzki Lore

OSTIRALA 19 VENDREDI

19h00 **ZIKIROA** 22€

Ixtaklok eta Holako Deluxe taldeek alaiturik !

LARUNBATA 20 SAMEDI

15h00 Haurren jokoak (egurrezko jokoak, puzgarriak...)
Jeux pour les enfants (jeu de bois, jeux gonflables...)

18h30 **STAND UP** - Makeako Komedia Plaza xokoan
STAND UP - Au fronton de Macaye

20h00 **PINTXO POTEOTE ATZARBALE** txarangarekin
PINTXO POTEOTE animé par **ATZARBALE**

22h00 **Kontzertuak** - Les concerts

GATIBU ZETAK

01h00 Dantzaldia **TRIKIZIO** taldearekin
Bal avec le groupe **TRIKIZIO**
Jatekoa Baigura ikastolak eginik

IGANDEA 21 DIMANCHE

10h30 Meza nagusia Lekorneko elizan
Messe solennelle à l'église de Mendionde

Ondotik bazkaria OGI BARNIA ostatuan
Suivi du repas au restaurant OGI BARNIA

16h30 Talo eta Xingar Ganixtarrak elkarteak proposaturik

17h00 Xiberutar dantza ikusgarria "Behin Bazen" **Brillili** taldeak emanik
Spectacle de danse "Behin Bazen" du groupe Brillili

18h00 **Kontzertuak** - Les concerts

RAKATAPUNK DES-KONTROL MASKAK

20h00
22h00
23h30 DJ UZKULUZ
Soirée avec le DJ UZKULUZ



ASTELEHENA 22 LUNDI

Herritarren eguna Mindegian, Atzarbalek alaiturik, Izena eman 06.76.38.58.42
uztailaren 15a aintzin

Journée des villageois à Mindegia, animé par Atzarbale.
Réservation à Amaia Borda au 06.76.38.58.42 avant le 15 juillet

21h00 Gualdia Bidegaray ostatuan **BASAPIZTIAK** kontzertuarekin
Soirée au restaurant Bidegaray avec le concert du groupe **BASAPIZTIAK**



Agenda

- 13 au 22 juillet Fêtes de Macaye
- Vendredi 23 août Fête du fromage
- Vendredi 6 septembre Collecte encombrants
- Dimanche 29 septembre Makea Oinez
- Dimanche 6 octobre Kermesse
- Dimanche 20 octobre Loto de l'école
- Samedi 9 novembre Tournoi Esku Pilota
- Lundi 11 novembre Tournoi Esku Pilota
- Vendredi 8 décembre Collecte encombrants

Mairie - Herriko Etxea

Tél. - Zenbakia: 05.59.93.32.46
Mail - Mail-a: mairie-macaye@orange.fr

Ouverture les lundi, mardi, vendredi et samedi de 9h à 12h30.
Astelehen, asteart, ostiral eta larunbatetan idekia goizean:
9:00 - 12:30

Permanence du Maire le lundi de 9h à 12h.
Herriko etxearen permanentzia astelehenero: 9:00 - 12:00

Agence Postale - Posta

Tél. - Zenbakia: 05.59.15.60.02

Ouverture les lundi, vendredi et samedi de 8h30 à 12h30 et le mardi de 14h à 18h.
Astelehen ostiral eta larunbatetan idekia (8 :30 - 12 :30) eta asteartean (14 :00 - 18 :00).



- Uztailaren 13tik 22a arte Makeako bestak
- Agorrilaren 23a, ostirala Euskal gasnaren pesta
- Irailaren 6a, ostirala Poxeluko pusken bilketa
- Irailaren 29a, igandea Makea Oinez
- Urriaren 6a, igandea Kermeza
- Urriaren 20a, igandea Eskolako lotoa
- Azaroaren 9a, larunbata Esku Pilota
- Azaroaren 11a, larunbata Esku Pilota
- Abenduaren 8a, ostirala Poxeluko pusken bilketa